

*Gogoeta berri honetan "aurreztearen" kontzeptua aztertuko dugu; gai horrek kezka handia sortzen zion Arizmendiarrietari, mugimendu kooperatiboaren biziraupena eta hazkundera erabat lotuta daudelako aurrezpen, inbertsio, austeritate eta horrelako alderdiei. Bistan denez, aurrezteko beharrak eta kreditu kooperatiba bat sortu izanak finantzaketa eta kapitalizazio arazoak konpondu zituzten hein handi batean, arazo horiek pisua hartzen ari baitziren gure kooperatiba ereduaren garapenean. Horren harira dator esaldi ospetsu hura: "libreta edo maleta".*

***Herriak, zuhaitzak bezala, indartsu eta sendo hazten dira zuztar sakonak botatzen dituztenean: komunitate baten ezkutuko zuztarrak ondo egindako inbertsioak dira. p418***

*Ez dezagun ahantzi: kooperatibek eta kooperatibistek arrakasta izaten jarraituko dute baldin eta kooperatibako kideen giza gaikuntzan eta kapitalizazioaren aurrerapenean inoren atzetik gelditzen ez badira, eta, betiere, nor bere jarduera betetzeko maila egokia ziurtatzen badu. p514*

*Ezinbestekoa da aurreztean oinarritutako austeritatea, aintzat hartzeko moduko garapen harmonikoa lortu ahal izateko. p516*

*Kreditu kooperatibak berebiziko garrantzia dauka mugimendu kooperatiborako. Hori da langileek daukaten bidea mugimendu kooperatiboari laguntzeko. p518*

*Inbertsio tasak, eta horien ondoriozko indartzeak, besteekiko elkartasunaren testigantzarik onena emateko daude, eta badakigu inbertsio tasa horiek existituko direla baliabide batzuk berehala gozatzeari uko egiteko gai garen neurrian. p519*